

ERANSKINA I. UDAL ERREGELAMENDU ORGANIKOARENA. ZUBIETAKO ADMINISTRAZIOAREN OSAGARRIZKO ORGANOA

1. Art.

Zubietan, batasun ezaugarritzko lur-esparrua, Usurbilgo eta Donostiako udalerriena, Administrazio Batzarra izango du, lur-esparruaren Administrazio-Osagarritzko Organo gixa.

2. Art.

“Zubietako Auzo-Batzarra” deituko zaio 6 kidez osaturiko Batzarrari, hauetatik 3 Donostiarrak izango dira eta beste 3 Usurbildarrak, guztiak ere Zubietako lur-esparruan helbideratuak izan beharko dutelarik.

3. Art.

Udal bakoitzaren zuzeneko hauteskunde-kontsultaren bidez gauzatuko da Batzarkideen hautaketa dagokion lur-esparruaren arabera, udal-hauteskundeekin batera, Batzarraren lehen osaketa ezik, kasu horretan Udal bakoitzak erabakiko duenaren arabera.

Agintealdia burutzeko geratzen den denboraldiagatik beteko dira bakanteak, Udal bakoitzeko zinegotzien denboraldiekin bat etorritz.

Hauteskunde Prozeduraren Lege Arautzailearen berarizko xedapenak aplikatuko dira kontsultan, egoki balegokio.

4. Art.

Batzarraren Lehendakariari “Alkate-Auzoa” deituko zaio eta bi urtetik behin Udal bakoitzeko Alkalteek izendatuko dute, txanda itzulkarian, Batzarkideen tartetik.

Lehen hautaketa Donostiako udalari dagokio.

5. Art.

Batzarrak bere kideen artean Idazkari bat hautatuko du.

6. Art.

Lehendakariaren zeregina da deialdiak egitea, mahaiburu izatea eta Batzar-bilerak altxatzea, akordioak proposatzea eta betetzea, Erakundeari ordezkatzeta eta bere helburuak bete ditzaten arduratzea.

7. Art.

Idazkariaren zeregina da Batzarrak hartutako erabakien aktak altxatzea, ziurtapenak luzatzea, espedienteak izapidatzea, kontabilitateaz arduratzea da. Erakundearen dokumentazioa egunean edukitzea, horretarako, Batzarrak bere kontura erabaki dezakeen laguntzailea izan dezakeelarik.

8. Art.

Batzarra biltzeko deia Lehendakariak egingo du edota Batzarkideen heren batek horrela eskatzen duenean.

Batzarra ospatuko den eguna baino gutxienez 48 ordu lehenago egin beharko da deialdia, presakakoan ezean, kasu honetan batzarrari ekiterakoan batzarkideen gehiengo absolutua aski delarik.

Batzarra balio osoz eratua geldituko da, lehen deialdian batzarkideen gehiengo absolutua denean eta Lehendakaria, idazkaria eta bokal bat direnean eratua geldituko da bigarren deialdian, gutxienez lehen deialdia baino ordubete beranduago, salbu Batzarkide guziek bertan egonik eta aho batez Batzarra eratzea erabakiko balute, azken kasu honetan ez litzateke behar ez deialdirik ez eta ere gai-zerrendarik.

9. Art.

Bertaratutako kideen gehiengo soilaz erabakiko dira Batzarraren akordioak.

10. Art.

Batzarraren funtzioak dira:

1. Zubietako arazo zehatzei buruzko informazioa luzatzea Donostiako eta Usurbilgo Udalei.
2. Udal Zerbitzuak aholkatzea beraien gain jartzen dituzten gaietaz.
3. Donostiako eta Usurbilgo Udaletan, bai elkarrekin bai banaturik, aztertuak izango diren proposamen zehatzak egitea.
4. Azterketa eta proiektuei buruz Udalek erabakiko dituzten akordioak beteak izan direla ziurtatzea.
5. Udalek Batzarrari eskuratuko dizkieten fondoak administratzea eta haien kontu zuzena ematea, alegia Batzarraren eta auzoko zerbitzu publikoaren mantenimendurako eta bere gain jartzen dituzten ekintza eta obra txikietarako fondoak administratzea.
6. Donostiako eta Usurbilgo Udalek bere gain jartzen dituzten beste edozein ahalmen.

11. Art.

Zubietako lur-esparruei dagozkion ebazpen edo akordioen proiektuez Donostiako eta Usurbilgo Udalek informazioa luzatuko diote Batzarrari, aurrez kontsultak eginez eta hala balegokio lur-esparru horretaz har daitezkeen erabaki guzien jakinerazpenak luzatuz; eta bidezkotzat jotzen dituzten fondoan gastuak aurrekontuetan kontutan hartuak izango dira. Batzarraren

funtzionamendurako eta bere gain jarriko dituzten obren eta zerbitzuen mantenimendurako, aurrez guztizko kopuruaz bi udalerrien arteko akordioaren arabera, udalerrri bakoitzeko zatiari dagokion biztanle kopuruaren proportzioz banatuko delarik.

12.Art.

Bi Udalek, Zubietan burutzea erabakiko dituzten obrei dagokienean, jarraian aipatzen diren erizpidetan oinarriturik egingo lirateke:

1. Bi Udalen artean onartutako proiektu bateratuaren araberrako obrak egitea, salbu batasun ezaugarriak dituzten sistema orokorreki ukitzen ez dieten obrak direnean.
2. Obraren zati handiena edota gehiengo bat zein udalerrietan kokatzen den, Udal horri legokioke berauen kontratazioa.
3. Beti ere, Batzarraren esku geratuko da bere lur-esparruan egingo diren obra guzien segimendua.

13.Art.

Zubietan udal zerbitzu publikoen prestazioari dagokionean, alde bakoitzeko Alkateak, beraien funtzionarien eta enplegatuen laguntzarekin ondorio jakinetarako elkarlanetaz baliatuko dira eta Lehendakariaren bidez Batzarrarekin bilkurak ospatzeko ahalmena izango dute.

14.Art.

Ohiz kanpoko Batzarre Nagusia ospatuko da Zubietan urtean behin, Donostiako eta Usurbilgo alkateekin batera, eta bi Udaletako gainontzeko ordezkariekin batera, tradizioa mantentzea eta Auzo horretako interes zehatzak bultzatzeko erabakiak elkarrekin hartzea izango dutelarik helburu.